

*Oikos-etik agora-ra: emakumeen irudiaren
bilakaeraren azterketa modaren bitartez (1900-1930)*
Donostiako kasua

Gradu Amaierako Lana

Leire Arberas Del Solar

Euskal Herriko Unibertsitatea
Letren Fakultatea (Historia Garaikideko Saila)
Zuzendaria: Unai Belaustegi

LABURPENA

Hogeita hamar urteren buruan (1900-1930) moda pisutsua, deserosoa, estalia eta apaindura handikoa izatetik, praktikoa, laburra, askea, erakargarria, lasaia eta arinagoa izatera igaroko da. Aldi berean, emakumearen eredia “Etxeko Aingeru”-tik “Eba Moderno”-ra pasatuko da. Bilakaera hori noiz, nola, zergatik eta noren eskutik gertatu zen ezagutuko dugu.

Hasiera batean, eliteko emakumeak gerruntze eta merinakeen gatibu bizi ziren, izan ere, espazio pribatua, hots, etxea, eta ama, emazte edo alabaren rola betetzea egokitzen zitzairen. Gerora ordea, gizonak monopolizatutako eginkizunak bereganatu zituzten, hala nola, kirola egitea, gidatzea, lanera joatea, tabernan egotea eta beste batzuk. Bizimodu aldaketa hori modan islatu zen arropa eroso behar zutelako aktibitate berrietan jarduteko eta horregatik, bularretakoak, gona laburrak, konjunto *sporty*-ak, prakak eta bestelakoak janzen hasi ziren.

Guipúzcoa deportiva y aristocrática aldizkarian emakume modernoaren eredia da nagusi: “*cock-tail*”-ak edaten, tenisera jokatzen, Citroën autoen iragarkien protagonista izaten, Kontxako Hondartzan bainatzen edo eguzkia hartzen eta Pariseko azken moda imitatzen irudikaturik ageri da. Donostia hiri sofistikatu, tolerante eta kosmopolita zen Espainia kontserbadorearekin alderatuta, hein handi batean uda garaiko turisten etorrera zela eta. Bertan “*las muchachas encuentran las primicias de la moda; y para todos hay buena música, teatros y fiestas particulares*”¹. Frantziak Paris zuen bezala zeukan Espainiak Donostia. Horregatik, elementu amankomunak aurkituko ditugu modaren bihotzaren eta euskal txokoaren artean.

¹ María de Perales, “Frivolidades”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 1. zbk. (1926), 35. or.

AURKIBIDEA

LABURPENA.....	2
AURRE-SOLASA.....	4
1. IKUSPEGI OROKORRA (1900-1930).....	5
1.1. 1900-1910: MODAK “ETXEKO AINGERUA”-REKIN BAT.....	5
1.2. 1910-1920: LEHEN MUNDU GERRAREN ERAGINA.....	10
1.3. 1920-1930: <i>GARÇONE</i> “EBA MODERNOA”-REN ESENTZIA ISLATZEN.....	12
2. DONOSTIAKO KASUA: “ <i>GUIPÚZCOA DEPORTIVA Y ARISTOCRÁTICA</i> ” ALDIZKARIAREN AZTERKETA (1926-1932).....	18
3. ONDORIOAK.....	28
BIBLIOGRAFIA.....	30

AURRE-SOLASA

Ondorengo ikerlanaren helburua zera da: XX. mendearen lehenengo erdialdean, hain zuzen 1900etik 1930ra, oro har Europan eta Estatu Batuetan, modaren eboluzioaren bitartez eliteko emakumeen irudiak zer eraldaketa bizi izan zuen ezagutzea. Horretarako, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* aldizkaria izango dugu aztergai, Donostian 1926-1932 urteen bitartean argitaratua. Izan ere, Donostiari “Paris txikia” goitizena atxikitzen zaio eta aldizkariak, modan zentratuz, ezizenaren zilegitasuna frogatzeko aukera emango digu. Honela, mundu mailako eragina eta gehien bat Parisekoa, Donostian zenbateraino islatzen zen ikusi ahalko dugu. Gainera, Donostiak mikroklima berezia zuen Primo de Riveraren Espainian eta beraz, oso interesgarria da aparteko kasu honetan murgiltzea.

Gaia aukeratzearen arrazoiak hurrengoak dira. Bada, batetik emakumeak luze baztertuta eta absente egon dira historian, aitzitik, azkenaldian interes handia piztu da emakumeen inguruan eta funtsezkoa da horrelako hutsuneak betetzea. Bestetik, moda hutsala eta friboloa iruditu arren, oso adierazgarria da gizartearen izaera ezagutzeko: “*capaz de revelar por sí sólo el alma de una época y el espíritu de un pueblo*”². Biak-ala-biak, hots, emakumearen irudia eta moda, estuki harremanduta daude eta eskutik biziko dute bilakaera prozesu bat. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* aldizkariak Donostiako bizimodu moderno eta kosmopolitara bidaiatzea ahalbidetuko digu transformazio horren nondik norakoak erakusteko.

Metodologiari erreparatuz, lehendabizi bigarren mailako iturri bibliografikoen bidez, hala nola, liburuak, artikulak, dokumentalak, doktoretza-tesiak eta beste batzuk, ikuspegi orokor eta laburbildu bat osatzeko dokumentazioa bildu da. Ondoren, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ren ale guztiak gainbegiratu eta ikerlan honi dagozkion atalak modu sakonean analizatu dira, lehen mailako iturria izanik oso baliagarria baita zuzeneko informazioa jasotzeko³. Bukatzeko, ikerlanetik eratorritako ondorioek itxiko dute testua. Horrez gain, argazki-eranskin batek laguntzen du lana.

² Carmen De Burgos, *La mujer moderna y sus derechos*. Valentzia: Editorial Sempere, 1927, 249. or.

³ *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* urtekaria 1926an kaleratu zen lehen aldiz eta 1932an azkenekoz. Aitzitik, hemerotekean eskuragai ez dagoen heinean, ikerlan honetarako ez da 1927ko alea aztertu.

1. IKUSPEGI OROKORRA (1900-1930)

Guipúzcoa deportiva y aristocrática aldizkariak “Paris txikiaren” inguruan eskaintzen digun isla bilakaera prozesu baten emaitza da. Horrenbestez, komenigarria litzateke denboran atzera egitea XX. mendearen hasierako testuingurua jakiteratzeko. Honela, ikerlanaren bideak eskala handitik txikira joko du. Bidaia honetan emakumearen irudiaren transformazioaren lekuko izango gara. Ordea, kontziente izan behar dugu emakumeak bere osotasunean ez direla aztergai izango, bakarrik talde murriz bati, estatus sozial altukoei alegia, egiten zaie erreferentzia eta beraz, emakume askok (gehiagoak) bizi izan zuten errealitatea oso bestelako izan zen.

Aldizkarian aurkezten den emakume modernoa aurreko hamarkadetan emandako aldaketen fruitu da. Lehenengo *femme ornée* estiloa eta “Etxeko Aingerua” ereduak zer ziren, Lehen Mundu Gerra zergatik izan zen inflexio-puntu, “urte zoro”-etako Coco Chanel nor zen eta *garçone* itxura nolakoa zen, edertasun kanonaren eboluzioa zein izan zen, modaren homogeneizazioa zer den, hondartzaren papera zein zen eta beste ideia anitz ezagutu behar ditugu. Horrela, aldizkariaren edukia hobeto ulertzeko gai izango gara eta konturatuko gara Donostiak orpoz orpo segitzen zuela Paris eta testuinguru globalean ematen diren ezaugarri ugari, hein handi batean Donostian errepikatu egingo direla.

“*Con la moda la mujer lo ha conseguido todo*”⁴

Carmen de Burgos.

1.1 1900-1910: MODAK “ETXEKO AINGERUA”-REKIN BAT

Belle Époque edo “Fin de siglo” kontzeptuek Europan 1871tik 1914ra (Lehen Mundu Gerraren hasiera arte) eman zen aldi historikoari egiten diote erreferentzia⁵. Nabarmenkeria handiko garaia izan zen⁶. Europako potentziek, Britainia Handiak eta Frantziak batez ere, munduan inperio zabalak eraiki zituzten. Honen ondorioz, Paris

⁴ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 256. or.

⁵ Lucina Llorente, *Los tejidos de la sala Belle Époque*, Madril: Museo del Traje, 2017, 3. or.

⁶ Rocío Luque Magañas, “Relaciones entre arte y moda: diálogos y juegos de identidad. Desde la alta costura en el vestir hasta nuestros días”, Doktoretza-tesia. Málaga: Universidad de Málaga, 2015, 138. or.

munduko erreferente bihurtu zen eta herrialde askok erneki behatu eta agudoki jarraitzen zuten, Donostiak barne. Izan ere, Paris gustu oneko, luxuzko eta xahubideko erdigune kontsideratzen zen⁷. Gauzak horrela, bertan gertatu zen modaren garapenik esanguratsuen. Ordura arte, sastre eta joskinek, gehienetan anonimoak, bezeroen agindupean lan egiten zuten eta erosleak ziren jantziatarako ideiak, ehunak eta apaingarriak proposatzen zituztenak. Baina XX. mendearen hasieratik aurrera, jostunek estatus sozial garrantzitsua irabazi zuten eta beraiek izango ziren kreazio propioak sortuko zituztenak, bezero-diseinatzaile arteko rola alderantzikatuz. Are gehiago, aldiro kolezio berriak sortu eta maniki bizidunak erabiliko zituzten arropak erakusteko⁸. Mundu guztiak nobedade horien zain adi itxarongo zuen.

Modarekin batera, genero femeninoa (emakumeengandik espero zen izaera edo profila) eboluzionatu eta aldatu egin zen. Sexuen ikusmolde dimorfistaren arabera, genero bakoitzak bertute edo ezaugarri batzuk zituen, hau da, emakume eta gizonek funtzio espezifikokoak, osagarriak eta, ondorioz, desberdinak zituzten eta horren arabera gizartean rol bat edo beste egokitzen zitzairen (erreproduktiboa emakumeei eta produktiboa gizonei). Hierarkia hori zalantzan jar zezakeen edozer antinatural eta immoraltzat hartzen zen⁹.

Hori dela eta, *Belle Époque*-n genero rolek tradizioan erroturik jarraitzen zuten. María del Pilar Sinués idazle espainiarrak “Ángel del Hogar” kontzeptua sortu zuen eta gero XIX. mendean zehar eta XX. mendeko lehen hamarkadan nagusitu zen emakume eredia izendatzeko erabilia izan zen¹⁰. “Etxeko Aingeruak”, emazte, ama eta etxeoandre gisa jarduten zuen¹¹. Emakumea, eredu honen arabera, purua, birjinala, asexuatua, bihozbera, eta otzana izan behar zen eta sukaldatu, garbitu, lisatu, sendatu eta

⁷ *Ibidem.*, 114. or.

⁸ Inmaculada Urrea Gómez, “La construcción de la marca personal de Coco Chanel a través de sus fotografías: Su aportación a la creación de la mujer moderna” (doktoretza-tesia, Universidad Pompeu Fabra, 2015), 25. or.

⁹ Teresa María Ortega López, “Mujeres y II República. *Redefinición y politización* del modelo de feminidad por las cultura antiliberales españolas”, *FEMINISMO/S* 16. zbk., 2010, 216. or.

¹⁰ Isabel Molina Puertos, “La doble cara del discurso doméstico en la España Liberal: El <<Ángel del hogar>> de Pilar Sinués”, *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 8. zbk. (2009), 182. or.

¹¹ Mary Nash, *Mujeres En El Mundo: Historia, Retos Y Movimientos*. Madril: Alianza Editorial, 2012, 39. or.

bestelakoak bere kargu gelditzen ziren. Ustez, gaitasun eta esentzia horiek naturalizat edo berezkitzat zituen sexu femeninoak. Gainera, aipatutako zereginak ez ziren lana bezala kontuan hartzen¹². Espainian “Perfecta Casada” ere esaten zitzaion, aditzera emanaz beren zorientasuna eta errealizazioa soilik etxe-esparru horretan gauzatzen zela. Beraien egitasmoa familia zen heinean, indibidualtasun oro galtzen zuten¹³. Irudi hau gizarte patriarkalaren isla zen, non emakumeen papera gutxiesten zen. Carmen de Burgos-en hitzetan, gizonetako arduratzen ziren aingeru haiei “hegoak moztzen”¹⁴. Horrela, emakumea esfera pribatura baztertuta zegoen, gizonek esfera publikoa kontrolatzen zuten bitartean.

Modak emakumearen inguruan eraiki zen irudi horrekin bat egiten zuen. Horretarako, emakumeen gorputza eraldatu eta moldatu egiten zen proportzio jakin batzuetan ahokatu arte. Garai honetako emakume ereduak harea-erloju itxura zuen. Harea-erloju forma hori lortzeko, hots, bi zati argi desberdintzeko, gerruntzea erabiltzen zen¹⁵. Elementu honek, bularrak, gerrria, sabela eta toraxa estutzen zituen¹⁶. Helburua titiak, aldakak zein ipurdia nabarmentzea eta gerrria txikitzea zen. Gerruntzeak gorputz organoen deformazioa eta birika, gibel eta bihotzeko gaixotasunak ekar zitzakeen¹⁷. Osasunerako kaltegarria zen arren, hala agintzen zuten edertasun arauak. Horrez gain, gorputza leuna, argala, ahula eta zuria izan behar zen. Marañón mediku espainiarraren arabera, arketipo sexual meheko aldian gaude eta emakumeak “linean” egon nahi zuen. Tendentziak horrela dihardu gaur egun ere¹⁸. Edna Woolman Chasek, *Vogue*ko editoreetako batek, argitzen zuenez “*el problema de la talla de los patrones era simple. Había una, y era la treinta y seis*”¹⁹. Marañónek jarraitzen du esanez gizonak emakumearen generoa maite duela eta emakumeak esfortsuak egin behar dituela

¹² *Ibidem.*, 44. or.

¹³ *Ibidem.*, 40-41. orr.

¹⁴ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 13. or.

¹⁵ Francois Baudot, *La Moda Del Siglo XX*. Moda. Espainia: Gustavo Gili, 2008, 34. or.

¹⁶ Laura Manzanera, *Del corsé al tanga: 100 años de moda en España*, Bartzelona: Ediciones Península, 2011, 19. or.

¹⁷ Inmaculada Urrea Gómez, *op.cit.*, 32. or.

¹⁸ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 255. or.

¹⁹ Linda Watson, *Siglo XX moda: Estudio del estilo de los últimos 100 años por década y diseñador, en asociación con Vogue*, Espainia: Edilupa Ediciones, S.L., 2004, 21. or.

erakargarria, deigarria eta berezia izateko. Emakumeak ordea, gizona bera, indibiduoa, maite du eta honi ez zaizkio jarraibide berdinak exijitzen²⁰.

Emakume dirudunen jantziei dagokienez, astunak, zurrinak, deserosoak eta estaldura handikoak ziren. Gonen bolumena puzteko merinakeak gehitzen zizkieten eta soinekoak oihal metro luzeekin osaturik zeuden. Lurreraino iristen zirenez, zikinkeria eta beharbada gaixotasunak eraman zitzaizketen arrastaka alde batetik bestera. Hauek bordatu, harribitxi, parpaila, tul, larru eta bestelakoekin apaintzen zituzten. Pamela konplexuak eta bitxiak zituzten osagarri, lumaz, lorez edota muturreneko kasuetan animaliaz dekoraturik (txoriak gehienbat)²¹. Zapatak txiki-txikiak izaten ziren eta buruan ile naturalaren eta ileordearen arteko konbinazio bildua zeramaten²². Eguzkitakoa ere erabiltzen zuten kolore zuria mantendu ahal izateko. Ez zaio alferrik *femme ornée* edo emakume apaindua deitzen emakume eredu honi (Eranskina: 1.Irudia). Aurretik aurkeztutako elementu hauen batasunak, mugimendua eta praktikotasuna galarazten zituzten²³. Simone de Beauvoir feministak argi laburtzen duenez: *“Paralizada por ropas incómodas y por los ritos del decoro, se le presenta (la mujer) al hombre como su cosa. El maquillaje, las joyas, también sirven para petrificar el cuerpo y el rostro”*²⁴.

Hirietatik at, bazegoen beste agertoki preziatu bat elkargune sozial gisara funtzionatzen zuena: hondartza. Arau sozialak generoaren araberakoak ziren eta hori modan islatzen zen. Emakumeen bainurako arropa jantzi labur bat, gerruntzea eta artilezko galtza zabalak ziren eta dena kolore ilunetan, gehienetan beltza edo itsas urdina, eginda gardentasunak ekiditzeko²⁵ (Eranskina: 7.Irudia). Modelo hauek hain ziren pisutsuak, itotzeko arriskua altua zela²⁶. Argi dago ez zeudela igeri egiteko pentsatuak, gehienez ere oinak edo hankak uretan murgiltzeko baizik.

²⁰ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 254. or.

²¹ Cally Blackman, *100 años de moda*. Bartzelona: Blume, 2012, 10. or.

²² Linda Watson, *op.cit.*, 18. or.

²³ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 250. or.

²⁴ Inmaculada Urrea Gómez, *op.cit.*, 27. or.

²⁵ Beverley Birks, José María Unsain eta Cristóbal Balenciaga Museoa, *Bainujantziak Eta Gorputzaren Erakusketa: XX. Mendeko Historia Alternatiboa*, Madril: Nerea, 2012, 16. or.

²⁶ *Ibidem.*, 22. or.

XIX. mendearen erdialdetik, bazeuden kantauriar kostaldetik, Donostian adibidez, hondartzako aldagelak. 1907an Annette Kellerman australiarra atxilotu zuten bainujantzi maskulino baten antzeko bertsio bat janztera ausartzeagatik²⁷. Emakumeek “gehiegi” erakustea moralaren aurka zihoan eta ez zegoen baimenduta. Eta gizonek zer? Beste errealitate bat bizi zuten. Normaltzat ikusita zegoen hauek bainujantzi estuak eramatea eta euren gorputzak erakustea (Eranskina: 9.Irudia). Hala ere, denborak aurrera egin ahala emakumezkoen bainujantzien moda modernizatu eta gorputza erakustea naturalizatu egingo zen, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n Kontxako Hondartzan ikusiko ditugun irudiek erakusten duten moduan.

Aurretik esan bezala, azpimarragarria da garai honetan modak aldaketa inportante bat bizi izan zuela: goi-mailako jozkintza. Charles Frederick Worth ingelesa izan zen lehenengoa bere kreazioetan (erregego, aristokrazia, pertsona aberats eta famatuentzako) sinadura jartzen Parisen²⁸. Harrezkero, Paris bilakatu zen modaren munduko hiriburu, bere eragina gainontzeko herrialdeetara hedatuz, hots, Paris “*un astro independiente con vocación internacional*” bat zen²⁹. 1900ean oihartzuna eta arrakasta lortu zituen Pariseko Erakusketa Unibertsala ospatu zuten. Orduetik, markak, desfileak eta moda-denboraldiak sortzen hasi ziren³⁰. Sektore honetako langileak jostunak izatetik, diseinatzaile edo luxuzko artistak izatera igaro ziren. Baditugu hemen adibide garrantzitsu batzuk (Madeleine Vionnet, Paul Poiret, Mariano Fortuny, Jeanne Paquin etab.) modaren aldaketa iraultzailearen aitzindari izan zirenak, emakumezkoen jantzi-eredu sinpleagoak, erosoagoak eta lasaiagoak asmatzeagatik, alegia. Paul Poireti, beharbada ballet errusiarretan inspiratuta, atxikitzen zaio gerruntzea baztertzearen meritua, zeinek bi zatiko konjuntio batengatik (paxa eta bularretakoa) ordezkatu zuen. Hala ere, ez dago argi berari edo Madeleine Vionneti zor diogun aurrerapen hori³¹. Dinamismo honek hurrengo hamarkadan aurkituko du gorengo unea.

²⁷ *Ibidem.*, 18. or.

²⁸ Cally Blackman, *op.cit.*, 10. or.

²⁹ Francois Baudot, *op.cit.*, 31. or.

³⁰ Laura Manzanera, *op.cit.*, 17. or.

³¹ Laura Manzanera, *op.cit.*, 22. or.

Modarekin batera, kosmetika mundua ere zabalduz eta haziz zihoan. Emakumeak zenbait produktu zituen merkatuan eskuragarri probetxua ateratzeko: makillaje-hautsak, koloretea, errimela, ezpainenakoa, azazkaletako esmaltea, kremak etab. Baina, egia da, makillatzea zilegia zen edo ez eztabaidagai zela maiz³².

Donostiako kasuan ikusiko dugun bezala, industria guzti hau koloretako aldizkariak, prentsak eta karteak sustatzen zuten³³. Emakumea zen moda publizitatearen objektu eta subjektu. Edozein produktu saltzeko bere irudiaz baliatzen ziren, izan daiteke bai gizarteak ematen zion izaera sexualagatik, bai emakumeak zirelako etxeko erosketak egiteaz arduratzen zirenak³⁴.

1.2 1910-1920: LEHEN MUNDU GERRAREN ERAGINA

Gutxinaka, feminismoa gero eta indar gehiago hartzen ari zen. Horren erakusle da 1911ko martxoaren 19an Emakumearen Nazioarteko Eguna lehen aldiz ospatu zela Europako herrialde batzuetan (Danimarka, Suedia, Alemania eta Austria). Milioi bat emakumek baino gehiagok parte hartu zutela kalkulatu da eta hauen aldarrikapenen artean bozka eskubidea, kargu publikoetan jarduteko eskubidea, hezkuntza eta beste batzuk izan ziren³⁵. Hamarkada honetan emakumea espazio berrietara egokitu zen eta honekin batera genero femeninoaren irudia. Aurreiritzi, tabu eta ohitura asko aldatu ziren.

Bestalde, historia eta moda eskutik lotuta doazenez, hamarkada honetan badago funtsezko gertakari bat tradizio anitz, moda barne, kolokan jarriko dituenak: Lehen Mundu Gerra (1914-1918). Gizonezkoak borrokatzera joan zirenez, lantegi eta enpresa industrial asko jornalari gabe gelditu ziren. Emakumeek postu horiek bete zituzten eta etxeko *breadwinner* bihurtu ziren gutxienez denboraldi batez³⁶. Baina ez feminismoaren

³² Carmen De Burgos, *op.cit.*, 253. or.

³³ Marta Riera, *200 Años De Ilustración De Moda En España*, Bartzelona: Comanegra, 2014, 115. or.

³⁴ *Ibidem.*, 140. or.

³⁵ Daniel Barredo Ibáñez eta Martín Oller Alonso, “Género, ideología y prensa digital. La construcción informativa del Día Internacional de la Mujer Trabajadora en www.abc.es y www.elpais.com (2001-2010)”, *Revista Mediterránea de Comunicación*, 2. zbk (2012), 9. or.

³⁶ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 12. or.

edo askatasunaren izenean, baizik eta premiarenean. Nahi gabe izan zitekeen arren, guda ogibideek (erizaina, medikua, gidaria etab.) eta bestelako hutsuneek (fabrikak batez ere) modan osagai berriak gehitu zituzten: bombatxoak, lohihartzekoak, galtzak, uniforme militarrik...³⁷ (Eranskina: 4, 5 eta 6. Irudiak). Hala ere, goi-mailako hainbat diseinatzailek, adibidez Poiretek eta Vionnetek, guda garaian beraien negozioa ixtera behartuak ikusi zuten beren burua³⁸. Guzti honengatik, gerra inflexio-puntu bat izan zen bere neurrian.

Emakume burgesak eta aristokratak izan ziren hezkuntza aukera berdinak izateko eskubidea aldarrikatu zutenak, medikuntzan, abokatutzan eta bestelakoetan jarduteko³⁹. Eta ez hori bakarrik, bidaiatzen, kalean bizitza soziala egiten, bizikletaz ibiltzen, kirolean, hala nola, tenisa, golfa, patinaje artistikoa, igeriketa edo hipikan (Eranskina: 11, 12 eta 13. Irudiak) parte-hartzen eta nahi zuten bezala janzten, orrazten eta makillatzen hasiko ziren⁴⁰. Adibidez igeriketa, eta hortaz bainujantzien moda, 1910erako jada gizarteratu zen⁴¹. Edo tenisaren munduan, aipagarria da ospe handiko Suzanne Lenglen jokalaria frantsesa, zeini gure aldizkariak artikulu bat dedikatzen dion (Eranskina: 16.Irudia). Honela, kirolak emakumeen gorputza eta edertasun kanona aldatu zituen. Gainera, emakumeen irudiaren emantzipazioaren ezaugarri garrantzitsu bat izan zen. *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-ko ale guztietan aldizkariaren zati bat kirolari dedikatzen zioten eta modernitate prozesuaren funtsezko elementu bat izan zen.

Aldi honetan modako elementu protagonista galtza izango da. Gizonek beraien maskulinitatearen sinbolo bihurtu zuten eta arropa hau ez zen emakumeen esfera denetan orokortuko XX. mendearen amaierara arte⁴². Aitzitik, Coco Chanelek bere irudiaren ikur bihurtuko zuen hurrengo hamarkadan. Momentuz, bakarrik intimitatean pijama moduan jantzi ahal zuten⁴³. Bitxikeria gisa, interesgarria da Poireti 1913an gertatu zitzaiona. Bere moda-kolekzio baten inguruan dokumental bat sortu eta AEB-ra

³⁷ Cally Blackman, *op.cit.*, 12. or.

³⁸ Charlotte Seeling, *Moda: El Siglo De Los Diseñadores, 1900-1999*. Espainia: Könemann, 2000, 60. or.

³⁹ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 17. or.

⁴⁰ *Ibidem.*, 260. or.

⁴¹ Beverley Birks, José María Unsain eta Cristóbal Balenciaga Museoa, *op.cit.*, 22. or.

⁴² Carmen De Burgos, *op.cit.*, 250. or.

⁴³ *Ibidem.*, 262. or.

bidali zuen bezero amerikarren arreta pizteko. Baina iritsi bezain laster konfiskatua izan zen bere “eduki pornografikoagatik”, hots, emakumeak gonarekin (“*falda-pantalón*”) agertzen zirelako⁴⁴. Honek erakusten du jarrera puritano eta sexista horren atzean dagoen mentalitate kontserbadorea eta ondorioz, emakumeen gorputza agerian egoteak eragiten zuen begirada sexuala. Janzkeran “gehiegikeriak” ekiditeko neurriak ezartzen ziren, gero *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n lurretik gonara gehienez 25 zentimetroko luzeera onartzen zela esaten den bezala, adibidez.

1.3 1920-1930: *GARÇONE* “EBA MODERNOA”-REN ESENTZIA ISLATZEN

Baina Poiretek sustatu eta indartutako soiltasuna, arintasuna eta dinamikotasunaren ondorio eta gerra handiak ekarri zuen genero femeninoaren perspektibari esker, 20ko hamarkadan eliteko emakumeek janzteko estilo berri bat ez ezik, bizimodu berri bat ere ezagutu zuten. Emakume hiritar prototipikoaren eredua erdi edo goi mailako klaseko emakumea zen, gaztea, kirolaria, argala eta bizkorra, gona eta ile laburra, jantzi arin eta funtzionalak eramaten zituena, gerruntzerik gabe eta mendeetan zehar ezkutatuak egon ziren hankak agerian uzten zituena⁴⁵. Emakumeak *oikos*-etik *agora*-ra pasatu ziren. Clara Campoamor feminista espainiarraren aburuz, “*toda mujer, por el hecho de producirse con acierto en terrenos a que en otro tiempo le fuera vedado el acceso, revoluciona, transforma la sociedad; es feminista*”⁴⁶.

Jakina denez, 20ko hamarkada *années folles* edo “urte zoroak” bezala da ezaguna. Aurreparen teknikoak eman ziren, besteak beste, kotxeak, etxetresna elektrikoak, telefonoa eta irratia⁴⁷. “Ángel del Hogar” horretatik “Eva Moderna”-ra igaroko gara eta beraz, emakumearen eredua aldatzen doa. 1923an Vogueko aldizkariak ironiaz beterik honela deskribatzen edo saltzen zuen emakume eredu berria: “*La vampiresa: una marca muy especial. Uno se declara a ella por teléfono y se casa por radio. No construye un*

⁴⁴ Charlotte Seeling, *op.cit.*, 191. or.

⁴⁵ María-Gloria Núñez, “Políticas de igualdad entre varones y mujeres en la segunda república española”, *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V*, 11. zbk. (1998), 401. or.

⁴⁶ Miren Llona, “La *señorita* y las otras. Fronteras de clase y subjetividad en el primer tercio del siglo XX en España”, *Autoridad, poder e influencia. Mujeres que hacen historia*, (Bartzelona: Icaria, 2017), 114. or.

⁴⁷ Charlotte Seeling, *op.cit.*, 85. or.

hogar y la lleva a él, sino que mezcla un cóctel y la saca de él. Probablemente pedirá el divorcio basándose en pasos de baile incompatibles. Apta solo para millonarios”.⁴⁸

Beraz, emakume honen irudi mitikoa eder, aktibo, dinamiko, inkonformista, independenteago eta askeago imajinatu behar dugu. Kausa edo arrazoi ugari bat egin zuten hori gertatzeko, azpimarragarrienak: hirigintzaren garapena, industrializazioa eta feminismoa. Hiri esparruek, hala nola, jatetxeek, saloiek, kabaretek, hondartzako paseoek, pasarelek, kirolek, automobilerik, hotelek, boulevardek, tabernek, kasinoek (esate baterako, Donostiako Kursaal), aktibitate modernoak egiteko aukera eskaintzen zuten.⁴⁹ Gainera, teknologia berriek, besteak beste, xurgatzailea, hozkailua, gas sukualdea, berogailua etab., aisialdirako aukera ematen zieten emakumei⁵⁰. Horrekin batera, emakumeek idazkari, telefonista, harreragile, maistra, erizain eta bestelako lanpostuetan jardun eta soldata bat irabazi zezaketan nahi zuten horretan gastatu ahal izateko⁵¹. Horretaz aparte, batez ere 1850eko hamarkadatik aurrera, AEB-n eta Ingalaterran mugimendu feminista jaio eta indarrez hazi zen, gero pixkanaka Europatik zabalduz. Espainiara ere iritsi zen, hala ere, beste herrialde batzuetara baino beranduago. Feminismoari esker, bozka eskubidea, ezkontza zibila, dibortzioa, hezkuntza mistoa, lan merkatuko diskriminazioa gutxitzea eta beste hainbat aurrerapen lortu ziren. Guzti honen gehiketak emakumearen irudi tradizionala eta kontserbadorea kolokan jarri zuen.

“Eva Moderna”-k “Ángel del Hogar” figurarekin zuen desberdintasunik handiena zen ustez emakumearena zen esentzia, hau da, amatasuna feminitatearen oinarria izatea, galtzen zuela. Baina eredu moderno hau ahula zen eta ez zuen lortu genero diskurtsoan guztiz barrentzea ezta mantentzea ere⁵². Oraindik pentsatzen zen emakumeen egitekoa ugalketa zela eta beste edozein aktibitate horren osagarri eta menpeko zen⁵³.

⁴⁸ Linda Watson, *op.cit.*, 40. or.

⁴⁹ Marta Riera, *op.cit.*, 125. or.

⁵⁰ Charlotte Seeling, *op.cit.*, 85. or.

⁵¹ Milagros García Bonafé, “El siglo XX. La revolución deportiva de las mujeres”, *Apunts. Educación Física y Deportes*, 64. zbk., 64 or.

⁵² Mary Nash, *op.cit.*, 58. or.

⁵³ *Ibidem.*, 60. or.

Urte hauetan zehar beraz, “Eva Moderna”-rekin batera estilo berri batekin egingo dugu topo: *garçonne*. Modernitatearen adierazpen muturrenekoa izan zen. Frantzian eta AEBn 20ko hamarkadan agertu zen baina Espainian beranduago 30eko hamarkadan. Victor Margueritte idazlearen 1922ko *La Garçonne* eleberritik dator terminoa eta emakume zehatz baten itxura jasotzen du: bular laua, ilea “mutilen erara”, gerria solte eta hankak agerian⁵⁴. Janzkera ere ildo beretik zihoan eta irudi androginoa bultzatzen zen. Kurbak azpimarratu beharrean, lerro zuzenekiko joera zegoen eta batzuetan titiak hesgailuz lotzen zituzten bolumena murrizteko⁵⁵. Soiltasuna zen aro moderno honen erdigunea. Ohikoak ziren armairu “maskulino”-etako arropak, hala nola, esmokinak, trajeak, alkandorak, lebitak eta kapela txikiak. Beauvoirren hitzetan: “*no hay nada menos natural que vestirse de mujer; sin duda las ropas masculinas son también artificiales, pero más cómodas y sencillas, están pensadas para favorecer la acción y no para entorpecerla*”⁵⁶. Otto Wininger filosofoak esan zuen bezala “ezin da Rolls Royce bat Gainsborough kapela batekin gidatu, gorputz-adar bat anputatu merinake batekin edo polora jolastu gerruntze batekin”⁵⁷.

Moda genero aldaketetara moldatu behar zen, bizimodu berri horrekin bat egiteko. Jantzi luzeek, belaunetik edo goragoko gona estuei eman zieten paso. Gerruntzearen erabilpen eza jada orokortua zegoen eta kapela handiak ez ziren bat ere praktikoak. Kremaierak agertu ziren gauzak errazteko eta azpiko arropak ez ziren hain gogaikarriak izaten. Ilean, esan bezala, orrazkera harrotuak alde batera utzi eta oso labur eramaten zen. Zapatak dantzarako (charlestonerako adibidez) pentsatuak zeuden, erdi-mailako takoi zabal eta egonkor batekin⁵⁸ (Eranskina: 2. Irudia).

Aisialdirako denborak, dantzara bultzatu ez ezik, hondartzara ere animatzen zituen emakumeak. Bainujantziak, izenak ematen dion funtzioa eskuratu zuen azkenean, hots, bainatzea. 1925eko maillota jada zango laburrek, eskote zabalek eta gona motzek osatzen zuten (Eranskina: 10. Irudia)⁵⁹. Modelo honek zenbait herrialdeetan ez zuen

⁵⁴ Francois Baudot, *op.cit.*, 62. or.

⁵⁵ Rocío Luque Magañas, *op.cit.*, 154. or.

⁵⁶ Inmaculada Urrea Gómez, *op.cit.*, 37. or.

⁵⁷ Linda Watson, *op.cit.*, 44. or.

⁵⁸ Charlotte Seeling, *op.cit.*, 91. or.

⁵⁹ Beverley Birks, José María Unsain eta Cristóbal Balenciaga Museoa, *op.cit.*, 22. or.

hain arrera ona izan. Esate baterako, Espainian, Primo De Riveraren diktaduran zehar, arropa honen aurkako jazarpena egin zen, adibidez Donostian eta Bartzelonan jantzea legez debekatuz. Poliziak erregela baten bidez neurtzen zituen bainujantzien luzerak hondartzan. Ordea, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-n bai agertuko zaizkigu emakumeak maillotarekin jantzita. Beste herrialde batzuetan berriz ondo onartua zegoen. Biarritzen, Frantzia, kosmopolitismoaren, ausardiaren eta dotoretasunaren hirian, modan zegoen eta Donostian baino askatasun gehiago zegoen⁶⁰. Gorputz ideal perfektua “Jantzen” izeneko logo estatubatuar bateko emakume jauzilari kirolariak irudikatzen zuen, maillot diseinuren baten estanpatua izan zena ⁶¹ (Eranskina: 8. Irudia).

Sexua ere bekatura harremanduta egotetik, elementu edo praktika positibo bat izatera pasatu zen. Maitasuna eta sexualitatea nolabait libreagoak ziren. Zenbait osagarri sentsual erabiltzen ziren jendearen arreta deitzeko: lumazko abanikoak, zigarroen ahokoak, perlazko lepoko luzeak, harribitxiak, galtzerdi oso gardenak, eskoteak aurretik eta atzetik, ehun elastikoak gorputzera itsatsiak (pijama eta bainujantzietan gehienbat) eta bestelakoak⁶². Emakumeak dagoeneko ez zituen bere desira sexualak ezkututzen⁶³. Hala ere, kontraesanak gauzatu zitezkeen puritanismo eta duintasun ideiekin.

Coco Chanel izan zen garai honetako diseinatzaile nagusia eta aurretik esandako ideia asko barne hartzen zituenena. *Belle Époque* ezaugarritu zuen emakume ereduaren antitesia adoptatu zuen. Familia txiro batetik zetorren baina bere patua aldatu zen⁶⁴. Étienne Balsan, Balsan Konpainia familiarraren (armadako uniformeen hornitzailea) legatua jaso eta zalditeriko ofizial erretiratu zen klase altuko frantses aberats hau, Chanelen maitalea izan zen. Honela, goi mailako eta izen oneko jendearen artean ezagutarazten hastea lortu zuen. Gainera, Balsanek bere lagun Arthur E. Capel aurkeztu zion eta maitale izan zuen hura ere. Biek Chanel bere moda negozioetan lagundu zuten, esaterako inbertitzen, kontaktuak sortzen zein Pariseko leku estrategiko eta eksklusiboetan toki bat aurkitzera laguntzen⁶⁵. Gainera, Lehen Mundu Gerra garaian

⁶⁰ *Ibidem.*, 54. or.

⁶¹ *Ibidem.*, 20. or.

⁶² Linda Watson, *op.cit.*, 42. or.

⁶³ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 257. or.

⁶⁴ Inmaculada Urrea Gómez, *op.cit.*, 46. or.

⁶⁵ *Ibidem.*, 39. or.

Chanelek Biarritzen lokal bat ireki zuen eta tarte horretan sendo mantendu zen diseinatzaile bakarrenetarikoa izan zen⁶⁶. Bere konjuntioak aurrerakoiak eta modernoak izaten ziren. Arreta deitzen zuen eta oso ospetsua egitera iritsi zen. Vogue-n maiz agertzen zen eta AEB-n bezero ugari izan zituen. Gizonek monopolizatutako modaren negozioan eredu izan zen.

Chanelek kapelak, aisialdirako eta kirolerako arropak (prakak, jertseak, jakak, botoiak...), permufeak etab. diseinatu zituen. Capelen heriotzak Chanelen arrakasta handienetarikoa bat ekarri zuen: “*little black dress*”. Kolore beltza kulturalki lutorako erabiltzen zen eta berak soineko horren bidez, modan jarri zuen egunerokotasunean janzteko⁶⁷. Gainera, azal beltzarana edukitzea modan jarri zuen, ordura arte saltzaile ibiltariak eta nekazariak ezaugarritzen zituen bereizgarri hori, osasuntsu egotearen zeinu bihurtuz⁶⁸. Femeninoa eta maskulinoa, zorrozatasuna eta xarma, apaltasuna eta luxua bateratu zituen. Glamour handiko emakumea izan zen Chanel. Aldi honetako filosofiari jarraiki, kalitatea, erosotasuna eta erakargarritasuna ziren bere pilareak. Charlotte Seeling autoreak ongi esaten duenez, Chanelek emakumeak “gerruntze mentaletik askatu nahi zituen”⁶⁹. Hain barneratura zituzten balore tradizionaletatik hain zuzen. Modu batean emakumea gizonaren dependentzietatik eta kontroletatik aldendu nahi izan zuen.

Hamarkada honetan modak ezagutu zuen funtsezko beste bira bat homogeneousazio edo parekotasun baten ekarpena izan zen, gutxienez gainazaletik⁷⁰. Hau da, momentu honetara arte arropak klase soziala islatzen zuen eta desberdintasunen markatzaile argia zen. Orain ordea, ez da hainbesteko alderik egongo klase ezberdinetako emakumeen artean. Alde batetik, jantzigintza industrialaren eta mass-mediaren garapenari esker⁷¹. Bestalde, hiri esparruetan modaren eskuragarritasuna erraztu eta negozio horretan sartuta zeuden enplegatuek, hala nola, jostun ikasleek, mandatariek eta dendetako saltzaileek, beraien lan baldintzak zirela medio lehenago imajinaezinak ziren arropak

⁶⁶ *Ibidem.*, 67. or.

⁶⁷ Charlotte Seeling, *op.cit.*, 101. or.

⁶⁸ Inmaculada Urrea Gómez, *op.cit.*, 72. or.

⁶⁹ *Ibidem.*, 101. or.

⁷⁰ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 262. or.

⁷¹ Rocío Luque Magañas, *op.cit.*, 125. or.

janzteko posibilitatea zuten⁷². Izan ere, moda gertutasunez bizi eta jarraitzen zuten. Carmen de Burgosek aditzera eman zuenez:

*“La moda tiende a igualarlo todo. Esa diferencia que existía en el aspecto exterior de la gran dama, la burguesa y la mujer de conducta dudosa, ha desaparecido. Todas visten lo mismo. No se diferencia de una simple señora, una Princesa o una Reina. Está todo permitido”*⁷³.

Hala ere, homogeneousazio horrek ez zuen berdintasuna edo demokratizazioa ekarri, bakarrik desberdintasunaren moderazioa. Firma ospetsuek, oihalen kalitateak eta jantzien formek jendea bereizten jarraitu zuten⁷⁴.

Carmen de Burgosek aitortu zuen bazirudiela mende askotako distantzia zegoela 1899 eta 1927ko emakumeen artean (*La mujer moderna y sus derechos* liburua)⁷⁵. Egia da XX. mendearen hasieran gauza anitz aldatu zirela erritmo nahiko azkarrean. Normala da etxera baztertzen ziren emakumeak eta garai honetakoak desberdinak izatea⁷⁶. Nahi beste esertzeko eta altxatzeko erraztasuna, mugimendurako askatasuna eta bakarrik irtetzea nobedade eta salto oso esanguratsu bat zen⁷⁷. Konkista bat, aurrerapauso bat. Emakumeek ez zuten soilik gizonen estiloa imitatu, egokitzen zitzairen espazio publikoa inbaditu zuten⁷⁸.

Alabaina, hamarkadaren amaiera aldera krisi ekonomikoaren etorrera emakumearen emantzipazio prozesurako kaltegarria izan zen. Gizonek mesfidantza sentitu zuten beste sexuaren gaineko aginte historikoa galduko zutelakoan eta balore tradizionalak bilakatu ziren berriz ere ardatz.

⁷² Miren Llona, *op.cit.*, 122. or.

⁷³ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 262. or.

⁷⁴ Rocío Luque Magañas, *op.cit.*, 146-147. orr.

⁷⁵ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 260. or.

⁷⁶ *Ibidem.*, 256. or.

⁷⁷ Linda Watson, *op.cit.*, 41. or.

⁷⁸ *Ibidem.*, 42. or.

2. DONOSTIAKO KASUA: *GUIPÚZCOA DEPORTIVA Y ARISTOCRÁTICA* ALDIZKARIAREN AZTERKETA (1926-1932)

Donostiaren kondizioak edo izaerak egiten zuen hiria berezi. “Paris txikia” adibide gisa aukeratzearen arrazoiak askotarikoak dira. Badakigunez, Frantziak paper esanguratsua zuen moda munduan eta euskal kosta mugatik oso hurbil egonda, eragin handiagoa eta zuzena jasotzen zuen. Bestalde, gertutasun horrek ere konparaketak egiteko parada eskaintzen du, adibidez Donostia eta Biarritzen artean, auzokide baina lehiakide eta aspektu batzuetan oso desberdinak. Halaber, Donostia salbuespena zen Espainian, izan ere, gune oso turistikoa zenez, aniztasun horrek hiria irekiagoa bihurtzen zuen. Orobat, Donostia hiri moderno batean transformatu zen.

Guipúzcoa deportiva y aristocrática aldizkaria Gipuzkoako Foru Aldundiak sortu zuen “Atzoko Prentsa Digitala” hemerotekan eskuragarri dagoen aldizkari zaharra da. Edukia (testuak, iragarkiak eta argazkiak) aztertzeak garai hartako informazio asko emango digu. 1926-1932. urteen artean argitaratua izan zela kontuan hartuta, bertan “Eba Modernoa” emakume ereduari atxikitzen zaizkion ezaugarriak aurkituko ditugu: kirola, hondartza, moda, kosmetika produktuak, kotxeak etab. Gainera, 20ko hamarkadan janzkeran nagusitzen den soiltasun horren isla ikusi ahalko dugu eta Donostiak hondartza daukanez, bainujantzien modaren berri izango dugu ere.

Guipúzcoa deportiva y aristocrática 1926an jaio eta 1932ra arte biziraun zuen Donostiako urtekaria izan zen⁷⁹. Errebista hau gehien bat gazteleraz idatzita zegoen arren, frantsesez eta ingelesez egindako artikulak zituen baita ere. Turismoa zela medio, atzerritarrak edukitzen zituzten bisitari, eta gainera euskal kosta Frantziatik oso gertu zegoen, hortik hizkuntza aniztasuna.

Urtean behin kaleratu zen. Uda garaian, zehatz-mehatz ekainaren 1ean, plazaratu ziren lehen bost aleak baina seigarrena eta azkena 1932ko urtarrilaren 1ean atera zen. Data horiek badute beraien zergatia eta esanahia. Testuinguru historikoari erreparatuz gero, garrantzitsua litzake aipatzea 1923tik Espainian Miguel Primo de Riveraren erregimen

⁷⁹ Arantza Arzamendi, *Catálogo de publicaciones periódicas donostiaras: 1800-1936*, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990, 153. or.

diktatorialak indarrean zirauela Alfontso XIII monarkaren onespenearekin batera. 1930ean Dámaso Berenguer militarren “diktablandak” jarraitu zion eta ondoren, 1931ko apirilaren 14an, Espainiako II. Errepublika aldarrikatu zen. Beraz, aldizkariaren eduki modernoa eta aurrerakoia kontuan hartuta, gobernu kontserbadore eta autoritario baten aurrean, argitalpena oporraldira mugatua zegoen. Donostiak mikroklima berezia zuen garaiko Espainian eta oso ezberdina zen udan edo neguan. Errepublika garaian ordea, argitalpen eguna ez zen politikoki hain baldintzaturik egon.

Prezioa pezeta bat edo pezeta eta erdi artean mugitzen zen, gutxi gora behera zifra estandarra izan zitekeena, beste aldizkari batzuek erakusten diguten bezala, adibidez *Renovante* (1930, Donostia), pezeta eta erdikoa ere⁸⁰. Beraz, irakurlearen perfila zabala izan zitekeen baina egia esan, edukia kontuan hartuta, erdi eta goi mailako herritarrei zuzenduta zegoen. Hala aditzera ematen du izenburuak ere. Izan ere, proposatzen zituzten aktibitate ugari burutzeko, esate baterako, bidaiatzea edo azken moda jarraitzea, dirua beharrezkoa zen.

Aldizkariak lantzen zituen gaiak askotarikoak ziren, hala nola, zaldi lasterketak, azken moda kontuak, Gipuzkoako inguru xarmagarriak, kirolak, euskal kultura, elkarriketak, merkatuko produktu berrienak etab. Azken helburua Donostia eta inguruak, batez ere kostaldea, kanpotar dirudunei ahalik eta modu erakargarrienean saltzea zen:

*“no es un rincón de París, como los franceses amablemente lo denominan; es un bellissimo rincón de España que brinda al veraneante cuanto pueda apetecer; fresco, albergues cómodos y al alcance de todas las clases sociales, alrededores pintorescos, hermosa playa, fáciles comunicaciones, diversiones y elegancia sin rival”*⁸¹.

Ordurako, Donostia frantses itxurako gune burgestua zen, esan bezala Parisek eragin handia zuen. Donostia Gipuzkoako hiriburua eta beraz, erdigune ekonomiko eta administratiboa zen. XX. mendearen hasieran, hazkunde demografikoa eta industriaren aurrerapena eman ziren bertan. Garrantzitsua da gogoratzea Espainiak Lehenengo Mundu Gerran bere burua neutrala aitortu zuenez, errefuxiatu edo iheslari askok bertan babesa bilatu zutela. Egoera horrek garapena bultzatu zuen. Uda garaian helmuga

⁸⁰ Arantza Arzamendi, *op.cit.*, 154. or.

⁸¹ María de Perales, “Frivolidades”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática, op.cit.*, 35. or.

ospetsua zen eta jende garrantzitsua biltzen zuen, besteak beste, gortesauak, aristokratak, burgesak eta artistak. 1930ean 75.000 biztanle izaten ziren neguan eta udan berriz bikoitza⁸².

1912an Maria Kristina hotela, erreginarene omenez horrela deitua, eraiki zuten turista dirudunei ostatua eskaintzeko. Erreginak berak Miramar Jauregia eraikitzea agindu zuen udako etxe gisa. Ingurutik aisialdirako espazioak ireki zituzten, hala nola, Urgull, Igeldo edo Ondarreta, garraiobide publikoan inbertitu zuten (tranbia-lineak, Frantziarekin konektatzen zuen topoa edo “*carreteras bien cuidadas, por las que corren autos sin esfuerzo*”⁸³ adibidez), telefonoaren erabilpena sustatu zen, banketxe ezberdinak eraiki zituzten etab. Donostiako bainuetxe zaharra 1912an ordezkatu zuten “La Perla”-gatik eta Kontxako hondartza eraberritu zuten (paseoa zabaldu eta 1910ean baranda famatua egin zen). 1921ean Kursaal kasinoa fundatu zuten elkargune sozial gisa eta hiritik espektakuluak antolatu zituzten, besteak beste, ballet errusiarrak, operak, pelikula proiektzioak Café Royalty eta Gran Café de la Marina bezalako kafetegietan, Victoria Eugenia Antzokiko antzezlanak, zezen plazako ikuskizunak, golf zelaiko partidak...⁸⁴ Eta ez bakarrik Donostian bertan, baizik eta hurbileko tokietan ere erreformak egin zituzten. Horren adierazle dira Zubietako hipodromoa eta Lasarteko automobil-zirkuitua. Zerrendatutako asko aldizkarian aipatzen dira behin eta berriz probintziari publizitate ona emateko. “Eba Modernoa”-rentzako hiri perfektua zen.

*El Gran Casino y el Gran Kursaal, están ahí para ofrecer a los visitantes sus salones, teatros, conciertos, tés, restaurantes, exposiciones y fiestas de noche. (...) el golf, el lawn-tennis, el tiro de pichón, reúnen a lo más escogido de la sociedad española y extranjera. Las carreras de caballos atraen también a esa clientela de lujo, así como al gran público en su magnífico Hipódromo de Lasarte” (...) Hay también fiestas típicas del país vasco, sus concursos de leñadores (...) sus bailes característicos, sus cortejos rústicos, su teatro vasco y en fin, sus no igualados jugadores de pelota.*⁸⁵

⁸² “San Sebastián Mar y Montaña”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1930), 29 or.

⁸³ *Ibidem.*, 32. or.

⁸⁴ Joseba Ortega, *Donostia-San Sebastián 1813-2013*, Espainia: Documentales Culturales Radiotelevisión Española, 2013.

⁸⁵ “San Sebastián Mar y Montaña”, *op.cit.*, 30. or.

Gainera, Frantziako Errepublikarekiko hurbiltasunak Donostia hiri liberalagoa izatea eragin zuen. Beraz, gune modernoa, kosmopolita eta aurrerakoia zen bere garaiko Espainiarako. Honek noski, Parisera begira, azken moda jarraitzen zuen⁸⁶.

Belle Époque Parisen Lehenengo Mundu Gerrarekin indargabetu zen baina Donostian 1923ra arte iraun zuen. Horiek izan ziren hiriaren “urrezko urteak”. Gero, esan bezala, Primo de Riveraren diktadurarekin egoera aldatu egin zen. Jokoa debekatu zuen eta festa arrakastatsuenak antolatzen zituen, kasinoa, itxi egin zuen. Donostian turismoak behera egin zuen, auzoko Biarritzen eta Donibane Lohizuneren mesedetan. 1931an, Bigarren Errepublika garaian, turismoa elite kontu bat izatetik erdi mailako herritarren esku egotera igaro zen⁸⁷.

Kanpotik zetorren turismo horrek batzuetan ez zuen euskal gizarte kontserbadorearen ohiturekin bat egiten. Engracio de Aranzadi “Kizkitza”-k, *Euzkadi* egunkariaren zuzendariak eta euskal nazionalismoaren ideologoak, Donostia “*inmensa casa de placer*”⁸⁸ gisa deskribatu zuen. Interesgarria da bere ikuspuntua ezagutzea agian beste askok berak bezala pentsa zezaketelako. Beraz, Kizkitza gizarte kontserbadorearen ideien adibide birbila dugu. Turistei buruz zera zioen: “*muchedumbres que llegaban hambrientas de carne*”⁸⁹ edo “*jóvenes verduleras que llegaban como reinas de los mercados de París*”⁹⁰. Etengabeko festa, gozamina, jokia eta horrek mugitzen zuen dirua guztiz kritikatzeko zituen. Kizkitzaren arabera, Donostiak euskal tradizioa gutxietsi edo zapaltzen zuen eta hiriko giroa katolikoentzako dentsoa eta gogaikarria zela baieztatzen zuen⁹¹.

Festa ez ezik, kirola ere garapen prozesu horretara batu zen. 20ko hamarkadan kirola, osasuntsu egoteko tresna baino gehiago, espektakulu edo erakustaldi gisa orokortu zen. Aristokrata, burges, noble eta klase ertaineko jendeak praktikatzeko zuen (gogoratu dezagun Suzanne Lenglen). Medikuen gomendioei jarraiki, luze sinetsi zen kirola ez

⁸⁶ Miren Koro Campos Santacana eta Laura Rodríguez Zamarreño, “El papel de las mujeres donostiarras en los siglos XIX y XX”, *Vasconia*, 30. zbk. (200), 453 or.

⁸⁷ Joseba Ortega, *op.cit.*

⁸⁸ Engracio de Aranzadi y Etxeberria, *Ereintza: Siembra de Nacionalismo Vasco 1894-1912*, Valladolid: Maxtor, 2010, 176. or.

⁸⁹ *Ibidem.*, 177. or.

⁹⁰ *Ibidem.*, 174. or.

⁹¹ *Ibidem.*, 175. or.

zela komenigarria emakumeentzako. Ideia honen arabera, printzipioz, emakumea naturaz bere sexura egokitzen ziren zereginetarako jaioa zen, horien artean ugalketa, eta kirola bezalako esfortsu fisikoak kaltegarriak izan zitezkeen berarentzako⁹². Baina modernitateak ideia hori aldatu zuen. Hiriguneetan, kirola aktibitate *chic*-a izateaz gain, emakumearen emantzipazioaren eta independentziaren sinbolo bilakatu zen. Izan ere, beste behin galarazi zitzaien espazio batean sartzea lortu zuten. Donostiak kirolean jarduteko aukera ematen zuen: igeriketa, atletismoa, tenisa, hipika etab.

Emakumeek Kontxako Hondartza edo “*Pearl of the Cantabrian coast*”⁹³ ere konkistatu zuten (Eranskina: 14.Irudia). Aldizkariaren arabera, “*el mar es un telón de fondo para que ante él se baile en traje de baño*”⁹⁴. Eta zertan zetzan dantza hori? “*La graciosa desenvoltura de las lindas damitas en sus preciosos trajes playeros, las conversaciones ligeras, frívolas o románticas*”⁹⁵. Generoaren ikuspuntutik aztertuta, emakumeak polit, xeble, dotore eta azaleko solasalditan irudikatzen ditu. Gainera, “-ita” txikigarria erabiliz, hitzak berak erakusten duenez, txikiagotzeko helburuarekin. Ziur asko esaldia ez zen intentzio sexista horrekin idatzita egongo, baina horrek jakinarazten digu genero rolen irudi tradizionalak erroturik jarraitzen zuela.

Kontuan hartu beharra dago, hondartzaren funtzio edo ideia nagusia “*ver y ser visto*” zela, elkargune soziala baitzen bainurako esparrua baino gehiago. Hala ere, aldizkarietan zehar bainujantziarekin eta itsasoan dauden emakumeen argazkiak agertzen zaizkigu. Espainian, urte gutxi batzuk lehenago imajinaezina zen jarduera eta arropetan. XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen lehenengo hamarkadan erabiltzen ziren bainujantzi pisutsu, deseroso eta luze horiek atzean utzi eta konjunto laburrago eta irekiagoetara jo zuten, eta kasu batzuetan maillotera. Bestalde, bainua eta gero, 20ko hamarkadarako jada Chanelek modan jarri zuen azal beltzarana edukitzea eta hori lortzeko eguzkia hartzearen praktika: “*el sol es oro nuevo, nítido, al encender el mar, y pone matices y reflejos de maravilla en la piel de las mujeres, brillante y húmeda*

⁹² Milagros García Bonafé, “El siglo XX. La revolución deportiva de las mujeres”, *Apunts. Educación Física y Deportes*, 64. zbk. (2001), 65. or.

⁹³ “San Sebastián”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 3. zbk. (1929), 28. or.

⁹⁴ María de Perales, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática, op.cit.*, 35. or.

⁹⁵ “El gran tesoro San Sebastián”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 5. zbk. (1931), 28. or.

*por el agua del mar, de este mar de agosto -sumisión, armonía, alegría-*⁹⁶. Kasualitatez edo ez, azken hiru hitzak ondo egokitzen dira ere emakumeengan espero zen profilarekin. Beltzaran egotearena ezaugarri berria zen, XX. mende hasieran zuritasuna bilatzen zen eta gero joera aldatu egin zen.

Iragarkiek moda horrekin bat egiten zuten: “*Cuide su cutis sometido constantemente a los efectos del sol y del aire. CREMA CALBER. De pureza absoluta sus componentes, conserva su epidermis suave y tersa, presevándola de arrugas y vejez prematura*”⁹⁷. Betiereko gaztetasuna bilatzen zen, ahalik eta ederren mantentzeko. Mezua emakumeei zuzendua zegoen. Horrela baieztatzen du, eta oso esanguratsua da, iragarkian bertan agertzen den irudiak: goi mailako emakume bat dutxatik irten berria eta bere atzean erdi ezkutaturik dagoen neskamea edo zerbitzaria (Eranskina: 17.Irudia). Modu honetara, klase sozialen arteko desberdintasuna eta edertasun produktuen hartzailea nor zen agerian eta argi gelditzen da.

Esan bezala, bainuaz gain, emakumeak beste kirol batzuetan ere aritzen ziren, adibidez tenisa. Aldizkariko “Jugadoras de tenis” izeneko artikulua batean gizon madrildar batek tenis jokalariai “*esas muchachas, ágiles, fuertes, vestidas de blanco y tomadas de sol*” bezala deskribatzen ditu. Kontzeptu hori Eba Modernoaren irudiarekin lotu genezake emakumea kasu honetan aktibo, gihartsu eta bizi ageri delako. Oraindik argaltasuna edertasun kanonaren funtsezko ezaugarria zen baina gorputz sendoak edo landuak onartuak eta are gehiago baloratuak izango ziren⁹⁸. Autoreak geroago azaltzen duenez, “*las jugadoras de por sí son el mejor de los espectáculos*” eta modu horretan jokalariai sexualizatu egiten ditu, partidua komentatu beharrean emakumeak objektu bilakatu. Testuaren beste atal batean “*ved como aquella alza varonilmente la pierna*” adierazten da, beraz erakutsiz oraindik kirolaren eta mugimenduaren izaera edo natura gizonari atxikitzen zitzaioela. Bukatzeko “*lo probable es que nada agradecieran tanto, evocaciones aparte, como un piropo*” dio, emakumeak tenis partiduan seduzituak izatera itxaroten egongo balira bezala⁹⁹. Horregatik, aurrerapauso bat kontsideratu

⁹⁶ “Estampas Donostiaras”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 5. zbk. (1931), 25. or.

⁹⁷ *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 2. zbk. (1928), 30. or.

⁹⁸ Carmen De Burgos, *op.cit.*, 255. or.

⁹⁹ “Jugadoras de tenis”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 5. zbk. (1931), 10. or.

daiteke estatus sozial altuko emakumeak kirol munduan sartu izana, baina bestalde, aurreiritzi asko zeuden eta mentalitatea ez zen momentuz guztiz aldatuko.

Bestalde, gizonen erreserbatutako beste espazio batzuetan murgiltzen hasi ziren emakumeak, esate baterako taberna (Eranskina: 15.Irudia). Hasiera batean, edatea eta erretzea ez zen moralki zuzena beraientzako eta oso txarto ikusia zegoen. Gizartea eskandalizatu eta harritu egiten zen: *“los caballeros se confiaban al oído: ¡Oh, es una mujer que fuma cigarrillos egipcios, bebe ‘cock-tails’ americanos!, Y con esa frase quedaba todo dicho”*. Baina emakumearen erredua aldatzen eta modernitatera moldatzen zihoan heinean, harresi ugari erori ziren. Ordea, arazoa litzake garapen horren zergatia edo arrazoa gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna baino, besteren bat izango balitz, adibidez: *“pero como esta bebida americana era grata al paladar, y permitía a las muchachas lucir muy bien la silueta sobre los altos taburetes del bar, un día quedó decidido que eso del ‘cock-tail’ era muy elegante y muy correcto”*¹⁰⁰. Berrero ere, emakumeak kontenplatzeko apaingarri bezala tratatzen ditu eta.

Moda femeninoak ere bere mugak ezagutu zituen Espainian. Feminismoak eta modernitateak talka egiten zuten moralitate eta kontserbadurismoarekin. Eliza katolikoak influentzia nabarmena zuen eta zer zen zuzena, errespetuzkoa, onargarria edo egokia markatzen zuen, baita janzkeran ere. AEBen eta Europako beste herrialde batzuetan emakumearen ideien inguruan eman zen askapena, Espainian berantiarra eta ahulagoa izan zen¹⁰¹. Donostiak kanpo-eragin handia jasotzen zuen baina, era berean, ez zen Espainiako giro itxi horretatik libratzen. Horrela erakusten du aldizkaritik eratorritako hurrengo pasarteak:

(...) pero como San Sebastián es una dama vasca de muchos y nobles blasones, condescende y hasta patrocina modernas innovaciones sin que se debiliten sus energías ante el cumplimiento del deber y para evitar disgustos a los veraneantes que allí dirijan sus pasos el próximo mes de Julio, nos permitimos recordarles que la atractiva ciudad será inflexible y hará cumplir cuanto manda y aconseja La Santa Sede, no permitiendo que las señoras penetren en sus templos

¹⁰⁰ “El Cock-Tail a la orilla del mar”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 6. zbk. (1932), 7. or.

¹⁰¹ José Manuel Díez Fuentes, “República y primer franquismo: la mujer española entre el esplendor y la miseria, 1930-1950”, *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social*, 3. zbk. (1995), 23. or.

*incorrectamente vestidas. Así pues, al vestuario, hay que agregar un trajecito largo, que le falten solamente 25 centímetros para llegar al suelo, que suba hasta la garganta y descienda hasta las muñecas de ambos brazos.*¹⁰²

Etika horrek Kizkitzaren ikuspegiarekin bat egiten zuen, hots, atzerritarrek euskal ingurunea kutsatu eta galbideratu egiten zutela. Uda denboraldiko emigrazioaren izaera euskal edo espainiar gizartearena baino aurreratua zen, moda kontuetan barne, eta arau ezberdinak bete behar zituzten. Beste toki batzuetan emakumeen gonien luzera belaunetik gora moztea eta eskote zabalak erakustea baimentzen zen bitartean, Donostian beso, bular eta hanketatik estalia joatea bultzatzen zen.

Ildo beretik jarraituz, esan bezala, oso interesgarria litzake Donostia (Espainia) eta aldameneko Biarritzen (Frantzia) errealitateak konparatzea. Biarritzen moda era jostalariagoan bizi zen eta adierazpen bide bezala erabiltzen zen. Limiteak zabalagoak ziren eta ez zegoen horrebestearainoko mugarririk. Donostian berriz, aipatu den moduan, estilo tradizionalagoa jarraitzen zen. Aldizkariaren arabera:

[Biarritz] *todas las manifestaciones de refinamiento, de lujo y también de extravagancia; no falta en ella gente que se entrega a las mayores excentricidades para llamar la atención de los demás, prefiriendo la crítica más acerba al pasar desapercibida. También las modas más estrafalarias tienen adeptos (...). No faltan mujeres que por seguir la moda, no se preocupan de si conviene a sus condiciones físicas, de si les sienta bien tal forma de vestido o de sombrero y la cuestión para ellas es ir trajeada con la última novedad (...) o se queda la señora demodé*¹⁰³.

Nolabait testuak kritika egiten dio Biarritzi modarekin esperimentatzeagatik edo nobedade ausartenak probatzeagatik, Donostiak janzkera tradizionalagoa defendatuko duen heinean. Horregatik, asaldatuak aurkezten dira eta gaitzetsi egiten dute auzokideen xeblekeria. Bi kostaldeen lehia eta ezberdintasuna antzematen da. Gainera, aldizkariak ulertarazten du emakumeak modara egokitu behar zirela eta ez alderantziz, izan ere, ohartarazten duenez, emakumeek beraien gorputzaren ezaugarri fisikoekin bat egiten

¹⁰²María de Perales, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, op.cit., 35. or.

¹⁰³“La vida en Biarritz”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 2. zbk. (1928), 58. or.

duten jantziak aukeratu beharko lituzkete. Beraz, moda askapen eta adierazpen tresna izan daitekeen bezala, inposizio modu bat izan daiteke aldi berean.

Dena dela, Donostia eta Biarritzen arteko harremana alde batera utzita, Parisek, modaren erreferente eta erdigune izaten jarraitzen zuen Europan. Hortaz, Frantziako hiriburuaren presentzia aldizkarian nabarmena da. 1929 eta 1930eko aleek “La Moda en París” artikulua dedikatzen diote eta aipamen anitz egiten dizkio XX. mendeko lehen hamarkadetan modaren eboluzioan eta aldaketan esanguratsuak diren zenbait elementuri. Adibidez, aipatu den moduan, moda diseinatzaileak sekulako artistak eta maisuak bezala aintzat hartuak zeuden: “*la mujer coqueta, espera siempre con impaciencia, los decretos sagrados de nuestros creadores de modelos*”¹⁰⁴.

Bestalde, azaltzen da 20ko hamarkadatik datorren estilo eroso eta sinple hori: “*notamos una gran sencillez pero sin sequedad*”¹⁰⁵. Emakumeen jantzi estatikoak, pisutsuak eta estuak jada baztertuta daude eta orain “*los vestidos, muy variados, se distinguen por su flexibilidad, adaptándose a todas las ‘draperies’ y a todos los movimientos*”¹⁰⁶. Eba Modernoen bizimoduak aktibitate berrietara (kirola eta bidaiatzea, besteak beste) moldatzen ziren ehunak eskatzen zituen, garrantzitsuenetariko bat puntua zen: “*para el sport y el viaje, el jersey es siempre rey*”¹⁰⁷. Eta ez hori bakarrik, emakume modernoak gauzez ere irtetzen ziren, beharbada dantzatzera, edatera, erretzera, flirtean ibiltzera... Baina egunez eta gauzez janzten zutenaren artean aldea zegoen: “*para la noche la espalda muy descotada, algunas veces hasta la cintura*”¹⁰⁸. Horrek islatzen du XIX. mendearen eta XX. mendearen arteko beste desberdintasun bat, emakumeak guztiz estaliak agertzetik, denbora aurrera joan ahala gizarteak onartu zuela gorputz gehiago erakutsaraztea, oraindik limiteak egon arren. Azkenik, 20ko hamarkadan antzematen den homogeneousazioaren inguruan ere mintzatzen dela dirudi: “*todas las mujeres hoy se visten bien. Ninguna de ellas dudará en lo que deba ponerse tal día a tal momento del día, en tal ocasión*”¹⁰⁹. Honela, modaren orokortasunari eta jendarteratzeari egiten dio

¹⁰⁴ “La moda en París”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 3. zbk. (1929), 88. or.

¹⁰⁵ *Ibidem.*, 88. or.

¹⁰⁶ *Ibidem.*, 88. or.

¹⁰⁷ “La moda en París”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, *op.cit.*, 89. or.

¹⁰⁸ *Ibidem.*, 88. or.

¹⁰⁹ *Ibidem.*, 88. or.

erreferentzia. Gainera, kontsumismora ere bultzatzen du emakumea, eguneko zereginak (paseatzea, kirola egitea, festa batera joatea, tea hartzea, gidatzea etab.) konjunto bat baino gehiago exijitzen zituztelako. Hortaz, “*para dar a su hermosura, más seducción y diversidad, la mujer elegante, debe poseer, una variada colección, de trajes y conjuntos, de última creación*”¹¹⁰.

Genero femeninoaren eraldatzea edo transformazioa modu askotan nabaritzen bada ere, aldizkariak emakumeak dotore, eder, erakargarri, limurtzaile, femenino, lirain... margotzen ditu, pertsona friboloak izango balira bezala. Ustez, moda emakumeentzako zera liteke: “*para satisfacer nuestra coquetería y hacernos más bonitas*”.¹¹¹ Aldizkariak ez du moda emakumeen emantzipazio prozesuan lagunduko duen tresna politiko gisa tratatzen, baizik eta guztiz kontrakoa, kapritxo, bizio eta entretenimendu bezala hartzen du. Aurretik aipatu moduan, horrelakoetan nabaritzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren diskurtsoak aldaketa positiboak ekarri zituela baina ez zela generoen ikuspegi tradizionala errotik ezabatzeko gai izan.

Bukatzeko, oso esanguratsuak dira aldizkarian irtetzen diren iragarki batzuk eta erlazio handia dute Eba Modernoaren figurarekin. Hala nola, “*las madres modernas crecen a sus hijos en los modernos coches-cunas*”, non marketina emakume modernoaren irudiaz baliatzen den propaganda egiteko eta produktu bat saltzeko baina non baieztatzen den emakume modernoa errealitate bat zela. Bestalde, beste honek “*con el servo freno Deware Repusseau un pie de mujer para en seco los caballos más fogosos... los de su automóvil. Hágalo montar en su automóvil. Le va en ello la vida.*” eta Citroën markaren beste iragarki batzuek (Eranskina: 18.Irudia), Eba Modernoek jada gidatzeko aukera zutela adierazten du, luzez soilik gizonei baimendutako jarduera bat izan zena.

¹¹⁰ “La moda en París”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1930), 95. or.

¹¹¹ *Ibidem.*, 91. or.

3. ONDORIOAK

Ikerlanaren kronologiak bi erreferentzia-puntu ditu: abiagunea eta helmuga. XIX-XX. mende aldaketarekin ireki eta 30eko hamarkada inguruan itxi egiten da. Behin eta berriz errepikatua izan da transformazio, bilakaera, eboluzio, eraldaketa edo garapen bat gertatu zela tarte horretan, beraz, aditzera ematen da aldaketa batzuk izan zirela. Galdera litzake aldaketa horiek positiboak eta mesedegarriak izan ziren eliteko emakumeen emantzipaziorako edo askapenerako.

XX. mendeko lehen herenean emakumeak ordura arte galaraziak zituzten ingurune sozialetan berregokitu ziren. Luzez esleitu zitzaaien rol pasiboa eta etxekotasuna baztertu eta gizarte aktiboan esku hartzeko aukera izan zuten. Hala, autonomia eta independentzia handiagoa irabazi zuten eta emakumearen irudi tradizionala hein batean modernizatzea lortu zuten. Mendearen hasieran moda deseroso, osasunerako kaltegarri eta mugimendua galarazten zuen horrek oztopo izugarria suposatzen zuen eliteko emakumeentzako. Garai hartan emakumea egokitu behar zen modara eta ez alderantziz. Ordea, emakume modernoek bizimoduak ez zuten bat egiten estilo horrekin. Izan ere, janzkera estatikoa elkargaitza zen dinamikotasunarekin, horregatik funtsezkoa eta saihetsezina zen emakumearen irudia aldatzen zen neurrian moda ere aldatzea. Arintasuna eta praktikotasuna ez ezik, gorputza gehiago erakusteko posibilitatea izan zuten ere.

Hala eta guztiz ere, edertasun arauak aldatzeak ez du zertan beti aurrerapen bat adierazi beharrik. Maiz inposizio zaharrak inposizio berriek besterik ez dituzte ordezkutzen. Adibidez, *femme ornée*-k gerruntzea gorputzari hare-erloju forma emateko erabiltzen zuen modu berean, *garçone* irudiaren bular laua imitatzeke hesgailua jartzen zuten beste emakume batzuek. Alabaina, “*la moda muere gastada y vuelve a renacer, sustituyendo a cada una de sus fases otra nueva y distinta, que en el fondo es siempre la misma*”¹¹². Horregatik, ezin genezake bizi zuten askapena idealizatu, bere argi-ilunak eta anbiguotasunak baititu. Era berean, Donostia hiri liberal eta aurrerakoi gisa planteatu

¹¹² Carmen de Burgos, *op.cit.*, 248. or.

izan den arren, zenbait zentzutan kontserbadorea eta atzerakoia izaten jarraitzen zuen. Esate baterako, Biarritzekin alderatuz gero, oso argi azaleratzen da desberdintasuna.

Ildo beretik jarraituz, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* urtekariak “Paris txikia”-ren bi aurpegiak azaleratzen ditu, bata modernoa eta bestea, ordea, tradizionala. Zentzuzkoa denez, diskriminazioan eta desperekotasunean oinarritzen zen mentalitate sexista bat aldatzeak bere denbora darama eta horregatik, ideia atzerakoi eta aurrerakoiak antzeman ditzakegu aldi berean aldizkarian. Donostiako giroak osagai aproposenak zituen “Eba Modernoa”-ren irudiari bidea irekitzeko baina Espainia kontserbadorea zuen oztopo. Egia da, zentsu batean emakume elitistak askeagoak zirela baina matxismoak gizartearen oreka mantentzeko pilareetako bat izaten jarraitzen zuen. Emakume eta gizonen rolaen kontzeptu dimorfistak erroturik zirauen. Gizonaren arketipo tipikoa gertuago zegoen “Kizkitza”-ren ikusmolde kontserbadoretik, tenis-partidako ikusle madrildarraren sexualizaziotik, hondartzan bainujantzien luzeerak neurtzen zituen poliziatik eta emakumeak edaten ikustean asaldatzen zirenetatik, modernitatearen prototipotik baino. Bestalde, emakume guztiak ez ziren Chanel bezalakoak eta askok “*acceptaron la idea de su inferioridad como un dogma*”¹¹³. Beraz, nahiz eta aldizkariak modu errepikakorrean modernitatearen eta askatasunaren ideia saldu, zeharka generoen ikuspegi tradizionalaren zantzuak agertzen dira nonahi.

Hortaz, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*-k generoaren bilakaera positiboa islatzen du batetik, eta ordea atzerapenaren arrastoak bestetik. Laburbilduz, aurrerabidea nabarmena izan bazen ere, bide luzea gelditu zen ibiltzeke.

¹¹³ Carmen de Burgos, *op.cit.*, 13. or.

BIBLIOGRAFIA

- Aranzadi y Etxeberria, Engracio. *Ereintza: Siembra de Nacionalismo Vasco 1894-1912*. Valladolid: Maxtor, 2010.
- Arzamendi, Arantza. *Catálogo de publicaciones periódicas donostiarras: 1800-1936*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1990.
- Barredo Ibáñez, Daniel eta Oller Alonso, Martín. “Género, ideología y prensa digital. La construcción informativa del Día Internacional de la Mujer Trabajadora en www.abc.es y www.elpais.com (2001-2010)”. *Revista Mediterránea de Comunicación*, 2. zbk (2012).
https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/23722/1/CMD_02.pdf (2019ko maiatzaren 5ean kontsultatua)
- Baudot, Francois. *La Moda Del Siglo XX*. Espainia: Gustavo Gili, 2008.
- Birks, Beverley, Unsain, José María eta Cristóbal Balenciaga Museoa. *Bainujantziak Eta Gorputzaren Erakusketa: XX. Mendeko Historia Alternatiboa*. Madril: Nerea, 2012.
- Blackman, Cally. *100 años de moda*. Bartzelona: Blume, 2012.
- Campos Santacana, Miren Koro eta Rodríguez Zamarreño, Laura. “El papel de las mujeres donostiarras en los siglos XIX y XX”. *Vasconia*, 30. zbk. (200), or. 447-456, <http://hedatuz.euskomedia.org/3446/1/30447456.pdf> (2019ko maiatzaren 5ean kontsultatua)
- De Burgos, Carmen. *La mujer moderna y sus derechos*. Valentzia: Editorial Sempere, 1927.
- Díez Fuentes, José Manuel. “República y primer franquismo: la mujer española entre el esplendor y la miseria, 1930-1950”. *Alternativas. Cuadernos de Trabajo Social*, 3. zbk. (1995)
https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/5845/1/ALT_03_03.pdf (2019ko apirilaren 29an kontsultatua)
- García Bonafé, Milagros. “El siglo XX. La revolución deportiva de las mujeres”. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 64. zbk.
<https://www.raco.cat/index.php/ApuntsEFD/article/view/301950/391566> (2019ko maiatzaren 1ean kontsultatua)

- *Guipúzcoa deportiva y aristocrática* (1926-1932)
- Llona, Miren. “La *señorita* y las otras. Fronteras de clase y subjetividad en el primer tercio del siglo XX en España”. *Autoridad, poder e influencia. Mujeres que hacen historia*. Barcelona: Icaria, 2017, 105-129. orr.
- Luque Magañas, Rocío. “Relaciones entre arte y moda: diálogos y juegos de identidad. Desde la alta costura en el vestir hasta nuestros días”. Doktoretza-tesia. Málaga: Universidad de Málaga, 2015.
- Manzanera, Laura. *Del corsé al tanga: 100 años de moda en España*. Barcelona: Ediciones Península, 2011.
- Molina Puertos, Isabel. “La doble cara del discurso doméstico en la España Liberal: El <<Ángel del hogar>> de Pilar Sinués”. *Pasado y Memoria. Revista de Historia Contemporánea*, 8. zbk. (2009),
https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/22228/1/PYM_8_08.pdf (2019ko apirilaren 30ean kontsultatua)
- Nash, Mary. *Mujeres En El Mundo: Historia, Retos Y Movimientos*. Madrid: Alianza Editorial, 2012.
- Núñez, María-Gloria. “Políticas de igualdad entre varones y mujeres en la segunda república española”. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V*, 11. zbk. (1998)
<http://revistas.uned.es/index.php/ETFV/article/view/2957/2817> (2019ko apirilaren 27an kontsultatua)
- Ortega, Joseba. *Donostia-San Sebastián 1813-2013*. Espainia: Documentales Culturales Radiotelevisión Española, 2013.
- Riera, Marta. *200 Años De Ilustración De Moda En España*. Barcelona: Comanegra, 2014.
- Seeling, Charlotte. *Moda: El Siglo De Los Diseñadores, 1900-1999*. Espainia: Könemann, 2000.
- Urrea Gómez, Inmaculada. “La construcción de la marca personal de Coco Chanel a través de sus fotografías: Su aportación a la creación de la mujer moderna”. Doktoretza-tesia. Barcelona: Universidad Pompeu Fabra, 2015.
Esteka: <https://www.tdx.cat/handle/10803/385858> (2019ko apirilaren 27an kontsultatua)

- Watson, Linda. *Siglo XX moda: Estudio del estilo de los últimos 100 años por década y diseñador, en asociación con Vogue*. España: Edilupa Ediciones, S.L., 2004.

ARGAZKI ERANSKINA: MODAREN BILAKAERA



1.Irudia: *Belle Époque*
-1900eko hamarkada-.¹¹⁴



2.Irudia: *Garçonne*
-1920ko hamarkada-.¹¹⁵

¹¹⁴ Charlotte Seeling, *Moda: El Siglo De Los Diseñadores, 1900-1999*. España: Könemann, 2000.

¹¹⁵ *Ibidem*.

4.Irudia: Erresuma Batuko munizio fabrika bateko bi langile.¹¹⁶



5.Irudia: Lehen Mundu Gerra garaiko postari ingeles bat.¹¹⁷



6.Irudia: New Yorkeko tranbia gidariak.¹¹⁸

¹¹⁶ Cally Blackman, *100 años de moda*. Barcelona: Blume, 2012

¹¹⁷ Charlotte Seeling, *Moda: El Siglo De...*

¹¹⁸ Cally Blackman, *op.cit.*



7. Irudia: Bainujantzia, 1895-96.¹¹⁹



8. Irudia: 1930, Jantzen logodun maillota.¹²⁰



9. Irudia: Urumea ibaiko gizon bainulariak, 1929.¹²¹



10. Irudia: Ondarretako emakume bainularia, 1926 (Donostia).¹²²

¹¹⁹ Beverley Birks, José María Unsain eta Cristóbal Balenciaga Museoa, *Bainujantziak Eta Gorputzaren Erakusketa: XX. Mendeko Historia Alternatiboa*, Madril: Nerea, 2012

¹²⁰ *Ibidem*.

¹²¹ Ricardo Martín, *Prueba de natación en el río Urumea a la altura de los cuarteles de Loiola*. Kutxa Fototeka, 1929.

¹²² Pacual Marín, *Mujer en Bañador en la playa de Ondarreta*. Marín Kolekzioa: Kutxa Fototeka, 1926.



11.Irudia: Tenislari frantsesa, 1906.¹²³



12.Irudia: Suzanne Lenglen tenislaria, 1925.¹²⁴



13.Irudia: Erresuma Batuko golf-jokalariak, 1927.¹²⁵

¹²³ Cally Blackman, *100 años...*

¹²⁴ *Ibidem.*

¹²⁵ *Ibidem.*

GUIPÚZCOA DEPORTIVA Y ARISTOCRÁTICA




14.Irudia: Emakumeak Kontxako Hondartzan (1930).¹²⁶



15.Irudia: Emakumeak tabernan (1930).¹²⁷

¹²⁶ “Estampas de San Sebastián”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 4. zbk. (1930), 35. or.

¹²⁷ “Del verano en San Sebastián”, *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 5. zbk. (1931), 29. or.



CUIDE SU CUTIS

Sometido constantemente a los efectos del sol y del aire

CREMA CALBER

De pureza absoluta en sus componentes, conserva su epidermis suave y tersa, preservándola de arrugas y vejez prematura

PERFUMERIA HIGIENICA CALBER
SAN SEBASTIAN

17.Irudia: Calber Kremaren iragarkia (1928).¹²⁹

Lawn-Tennis

Susana Lenglen



El juego de la mejor jugadora del Mundo, de la gran Susana, puede calificarse de maravilla del tenis, es el verdadero juego científico, con exacto conocimiento de todas las jugadas, una colocación perfecta que nace de esa intuición que la hace anticiparse al juego de su adversario, todo esto unido a una ejecución admirable, hacen que el juego de la gran campeona rinda el maximum con el esfuerzo mínimo.

En el tenis es muy poco frecuente encontrar jugadores con un juego completo; casi todos tienen un punto débil, que es al que dirige el adversario con más insistencia sus ataques. Pero en Susana puede decirse que ese punto débil no existe; su drive, su revés, su volea no muy fuertes, pero bien colocados, son perfectos.

Dentro de poco tiempo en Paris, se encontrará por segunda vez con la gran jugadora americana Helen Wills, única que hoy



puede inquietar a Susana. ¿Será vencida la hasta ahora invencible?

No lo creo; solamente el tiempo hará que Susana ceda su sitio a otra jugadora; pero no será vencida en una pista de tennis.

Conde de Gomár.

En el Tenis de San Sebastián:
Susana Lenglen con el Conde de Gomár a su izquierda

16.Irudia: Suzanne Lenglen tenis jokalaria¹²⁸

CITROËN 



Representante en Guipúzcoa - GARNIER AUTOMOVIL S. L.
Calle Iparraguirre - SAN SEBASTIAN

Publicidad COMAS-LAFONT

18.Irudia: Citroën iragarkian emakumea protagonista.¹³⁰

¹²⁸ *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 1. zbk. (1926), 23. or.

¹²⁹ *Guipúzcoa deportiva y aristocrática*, 2. zbk. (1928), 30. or.

¹³⁰ *Guipúzcoa deportiva y aristocrática, op.cit.*, 20. or.